

## Mexikoko doinuak Gau Giron

Los Veracruz etzi ariko dira plaza Berrian ▶ 2



## Kirola eta jolasa Altzoko haurrentzat

**UDALEKUA** ▶ Hogeita hamabi haur eta 3 begirale ari dira udalekuan; 23a bitarte dituzte ekitaldiak

**JAIETARA** ▶ Udaleku irekietako gaztetxoak Azkarateko jaietara joango dira gaur oinez ▶ 5



Altzoko haurrak pilotalekuan jolasean atzo goizean. OLAIJA ESKITXABEL



DANI GIBELALDE

## Iñigo Altuna, pilotari profesionala

**BERROBI** ▶ Frontis enpresarekin bi urterako kontratua sinatu du; lehen partidua irabazi zuen larunbatean Altsasun, Alustizarekin batera ▶ 6

## Herritar bat Perun dago espetxean atxilotuta

Haur bat bortxatzea leporatzen diote ▶ 3

## Babes ofizialeko 58 etxebizita egiteko hitzarmena sinatu dute

Bildo 5 kooperatibak Iturtxulon eraikiko ditu; Udala pozik agertu da ▶ 4



G.AZKUE

## Kooperatiba auzoko lanak esleitu dituzte

Udalbatzarrean hartu da erabakia ▶ 7

## GAU GIRO ▶

## IRATXE ETXEBESTE

Udako hilabeteetan herria hutsik geratzen den esanarekin ez dator bat Tolosako Udaleko Kultur Departamentua. Garai batean hala uste omen zuten haiek ere, baina oportetara joan ez, eta Tolosan gero eta jende gehiago geratzen zela ikusita, udako hilabeteetarako ekintzak egitea garrantzitsua zela pentsatu zuten. Eta halaxe egin. Badira hamar-hamabi bat urte Gau Giro programa sortu zutela, eta uztailetik irailera bitarte musika, dantza eta zinema ekitaldiak antolatzen dituzte harrezkero herriko gune ezberdinetan. Atzo egin zuten udal teknikariek aurtengo Gau Giro programa aurkezteko prentsaurrekoa.

Los Veracruz taldearen musikak emango dio aurtengo programari hasiera. Ostiral gauean izango da saioa Plaza Berrian, eta musika mexikarra eskainiko dute. Eibartik etorriko da Los Veracruz taldea Tolosara. Hogeita hamar urte daratza laukoteak elkarrekin, «boleroak kantatzeari utzi gabe». Haien erreperitorioan Los Panchos eta Maria Dolores Pradera bezalako abeslarien kantu ezagunak entzun daitezkeela azaldu dute kultur teknikariek, eta baita «haiek konposatutako bolero ederrak ere». Oso harreman zuzena izaten dute ikus-entzuleekin. «gau atsegina pasatzeko aukera emanez haiei: «Musika latinoan esperientzia luzea du laukoteak, Los Panchos eta haien moduko musika ekarriko dutelarik gogora». Lau ahotsak bi kitar klasikorekin eta retino batez lagunduta doaz beti.

Urtero legez, aire librean eskainiko dituzte, bestalde, filmak. Euskaraz eta gaztelerez, bakoitzetik bat hautatu dute antolatzaileek, eta Amaro azuko plazaxoan izango dira zinema emanaldiak aurturten. Eguraldiak lagunduz gero «giro aparta» sortuko da antola-

# Los Veracruz taldeak emango dio hasiera etzi gauean Gau Girori

Plaza Berrian eskainiko du laukoteak emanaldia 22:30ean; musika, dantza eta zinema eskaintza egin dute aurturten ere



Los Veracruz taldearen emanaldiak emango dio hasiera ostiral gauean aurtengo Gau Giro programari. HITZA

tzaileen hitzetan, baina hala ez balitz «porrota» izan liteke.

Dantza emanaldia ere ohiko bilakatu da Gau Giro programaren baitan. Portugaleteko jaialdira datozela eta Esloveniako dantza taldeak jardungo du hilaren 22an Euskal Herria plazan. Dantza tradizionala eskainiko dute esloveniarrak.

## Frontonekin elkarlanean

Negu aldean hasitakoari jarraipena emango diote udan ere. Fronton kafetegiarekin elkarlanean antolatuko dituzte uztailean, abuztuan eta irailean musika emanaldietako batzuk, eta udal teknikariek hitzetan,

«oso aberasgarria» da kolaborazio hori: «Jazz taldeentzat gozoagoa da Frontonen jotzea, eta ikus-entzuleentzat ere bai». Udan kanpoaldean egingo dituzte emanaldietako batzuk baldin eguraldi ona egiten bada: San Frantzisko pasealekuan, esaterako, eta bestela, berri, barruan izango dira.

Fronton kafetegietan, haien aldetik, programazio berezia antolatu dute, eta hiru saio egingo dituzte bertan. Frontoneko arduradun Jantxo Izagierren hitzetan, abuztuan antolatu nahi izan dituzte emanaldiak gehienbat, eta «larunbatean jendea asko mugitzen denez, iganderako utzi ditugu, he-

rritarrek mendi buelta eginda edo hondartzatik etorrira gozatzeko aukera izan dezaten». 19:00etatik 21:00etara izango dira, horregatik, kontzertuak. «Boleroak eta jartzea pentsatu dugu. Emanaldi mugikorrek izango dira, gainera, Kuban edozein tabernatan ohiko diren musika taldeen modukoak: mikrofonorik gabe...».

Udal teknikariek esan dute, eskertzekoa da Frontoneko Gau Giroarekiko izan duten jarrera, eta, ildo beretik, musika eta dantza taldeek izandakoa ere aipatzeko da, Gau Giro osatzeko 12.000 euroko aurrekontua «besterik izan ez» dutelako antolatzaileek.

## EGITARAUA ▶

### ETZI

**Los Veracruz.** Musika mexikarra, 22:30ean Plaza Berrian.

### UZTAILAK 16

**Joxan Goikoetxea Trio.** Jazz musika, 22:30ean Plaza Berrian.

### UZTAILAK 22

**Esloveniako dantza taldea.** Dantza folklorikoak, Euskal Herria plazan, 22:30ean.

### UZTAILAK 23

**Guarayra.** Latin jazz musika, 23:00etan Frontonen.

### UZTAILAK 30

**Tolosako Musika Banda.** 22:30ean, Plaza Berrian.

### ABUZTUAK 3

**'Pianojolea'.** Euskaraz eskainiko dute filma, Amaro azoan, 22:30ean. Aire librean izango da.

### ABUZTUAK 4

**'El Jurado'.** Gaztelaniaz eskainiko dute filma, Amaro azoan, 22:30ean. Aire librean izango da.

### ABUZTUAK 27

**Jeshmar.** Bossa Nova musika, 22:30ean Plaza Berrian.

### ABUZTUAK 28

**Deboson.** Musika kubatarra, 23:00etan, Frontonen.

### IRAILAK 3

**Zurian beltz.** Jazz musika, 23:00etan Frontonen.

## MENDIA ▶

# Gazteentzako mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak

Frantziako Pirinioetako Gavarnie eta Laglere inguruak bisitatuko dituzte

### I. ASENSIO

Lehenengo urtean izandako arrakastaren ondoren, Alpino Uzturre elkarteak 13 eta 18 urte bitarteko gazteentzat zuzendu-

tako mendi irteera antolatu du Frantziako Pirinioetara. Mendi irteera hau aukera paregabea izan daiteke Gavarnie, Laglere eta Neouvielle-ko inguruak ezagutzeko.

Alpino Uzturrek antolaturiko irteera uztailearen 17 eta 18ko asteburuan egingo da eta honako plangintza prestatu dute antolatzaileek:

Larunbatean, goizeko zaz-

piak eta erdian irtengo da autobusa eta Gavarnieko paraje ikusgarriak ezagutzeko aukera izango da. Bazkalondoren, Bagleres-ko herritik irten eta bi orduko ibilaldiaren ondoren, Laglereko aterpera iritsiko dira, bertan afaldu eta gaua pasatzeko. Igandean, gosalduraren ondoren, Neoviellera abiatuko dira Chausenqueko pasadizotik barrena. Gailurra egin ondoren, Lac D'Oubertera jaitziko dira eta bertan autobusa

zain izango dute Tolosara itzultzeko.

Bidaiaren kostua 36 eurokoa izango da. Prezio honek, autobusaren joan-etorria, aterpeko afaria eta gosaria, urte guztirako federakuntzako aseguruia eta elkartearen bazkidetza izango ditu barne. Izen-ematea Alpino Uzturre elkartearen egin daiteke. Elkartearen Gudari kalean dago, 5 behean, eta harremanetarako telefonoa 943 65 27 89 da.

GERTAKARIAK ▶

# Tolosar bat Perun preso, ume bat bortxatzea leporatuta

Ustez, martxoan hiru urteko umea bortxatu izana leporatzen diote M.A.I.L. 43 urteko gizonezko tolosarrari; Luriganchoko espetxean dago preso, epaiaren zain

ERREDAKZIOA

M.A.I.L. 43 urteko gizonezko tolosarra Peruko Luriganchoko espetxean dago preso, hiru urteko ume bat bortxatzea leporatuta. Ustez, aurtengo martxoaren 16an izan zen gertaera, eta ordutik Peruko hedabideetan noiz-nahi eta non-nahi ageri da kasua. Tolosaldean ere zeresana piztu du orain berriak, Espainiako *Interviu* aldizkariak herenegun kasuari buruzko erreportaia argitaratu zuenetik.

Aldizkariaren arabera, M.A.I.L. eta P.T.V. emakumezko peruarra 2003tik Internet eta telefono bidez komunikatzen ziren. Tolosarrak abuztuan Peru bisitatuko zuela esan zion, eta peruarrak lurraldea erakutsiko ziola hitz eman zion. Horrela, harremana estutzen joan zen, eta abuztuan elkarrekin izan ziren Perun.

Hilabete ondoren bueltatu zen Euskal Herrira. «Berriro elkar ikusiko genuela ziur nengoen. Telefonoz hitz egiten genuen, eta azaroan itzuliko zela esan zidan lehendabizi. Gero, 2004ko ekaina arte ezin izango zuela. Eta, azkenean, ez zuela data zehatzik». P.V.T. *Interviu* aldizkariaren egindako adierazpenak dira hauek.

Azkenean, 2004ko otsailaren 20an iritsi zen M.A.I.L. Perura. «Pozez txoratzen nengoen. Nire kuttuna nirekin zen berriro. Betiko izango zela pentsatu nuen», dio emakumezko peruarrek. Aldizkariaren arabera, elkarrekin jarri ziren bizitzera. Eta laster iritsi ziren aldatetara.

**Ustez, aurtengo martxoan**

Hiru alaba ditu P.V.T.-k. «Zu maite zaitut, baina ez zure ala-

**DELITUA**

Lotsaren aurkako zigorra leporatuta, Luriganchoko espetxean dago preso martxotik

**IKERKETA**

Peruko polizia nazionala kasua ikertzen ari da, pedofilia sare bateko kide dela susmoa baitu

**HARRIDURA**

Tolosarra «ez da gai horrelako bidegabekeria egiteko», diote jaiterriko lagunek

«bak», tolosarrak behin hori esan ziola azaldu du peruarrak erreportaiaren. Hasieran emakumezkoa harritu egin zen, baina guztiak ezin zuela perfektua izan pentsatu zuen gero. Agian alaba gazteena —hiru urteko haurra— maitatzen ikasiko zuela esan zion, ondoren. Era berean, senar ohiarekin hitz egitea proposatu zion, beste bi alabekin gera zedin exijitzeko. Bera geratuko zen alaba gazteena zaintzen. Peruarrak onartu egin zuen, eta martxoaren 16an egin zuten hitzordua.

Aldizkariak argitaratutakoaren arabera, ama itzuli zenean kolpeen arrastoak zituen umeak, eta umea bortxatua izan zela esan zitoten ospitalean.

Peruko polizia berehala atxilotu zuen M.A.I.L. Egun, Luriganchoko espetxean dago preso, epaiaren zain.

**Ikerketa zabalik**

Adin horretako —hiru urte— ume bat bortxatzeagatik bihurtzeko kartzela-zigorra ezartzen diete presoek Perun. Pedofiliak eta haur pornografiak azkenaldian gora egin duela eta gogortu dituzte zigorrak Hego Ameriketako lurraldean.

*Interviu* aldizkariaren arabera, lotsaren aurkako delituagatik ari dira ikertzen M.A.I.L. P.V.T.-ren abokatuak akusazioa aldatzea nahi du, eta tolosarrari bortxaketa leporatzea. Izan ere, lotsaren aurkako delituagatik hamabi urteko kartzela zigorra izango luke presoak gehienez, eta abokatuak hogeita hamar urtetik gorako zigorra ezartzea nahi du.

Espainiako aldizkariaren arabera, Peruko polizia nazionala kasua ikertzen ari da, tolosarra pedofilia sare bateko kide delaren susmoa baitu.

**Lagunak, «harriturik»**

M.A.I.L. defenditu duen lagun baten hitzak ere jasotzen ditu Espainiako aldizkariak: «Gizon ona zen. Oker baten aurrean gaudela iruditzen zait».

Tolosako lagunekin harremanetan jarri da **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**. Harekin ezin izan dutela oraingoz hitz egin azaldu dute, eta guztiak «harriturik» agertu dira, entzundako eta irakurritako berria «ezin zinetsirik».

Lagunaren errugabetasuna defenditu dute; haien iritzi, tolosarra «ez da gai horrelako bidegabekeria egiteko». «Guztia muntaia» izan daitekeela susmoa ere badute, eta balitekeela haren «diruaz aprobetxatze» egindako azpijokoa izatea. Hurrengo egunotan saiatuko dira tolosarrarekin hitz egiten.

PALETA ▶



lazio Paleta Txapelketako partida bat, Berazubín. OLAIA ESKITXABEL

## Martxan da Tolosa CFren Paleta Txapelketa

Lehendabiziko hiru partidak gaur jokatuko dira, 19:00etan, Berazubiko frontoian

**LEIRE MONTES**

Gaur, 19:00etan, ekingo diote, Berazubiko frontoian, Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketari. Hamabi bikotek hartuko dute parte aurtengo edizioan, hiru taldetan banatuta. Uztailearen 23a arte lehia eta ikusizuna ziurtaturik daude, beraz.

Ligaxka erara jokatuko dituzte partidak lehendabiziko fasean. Multzo bakoitzeko lehen sailkatuak zuzenean sailkatuko dira finalerdietarako. Hiru multzoetako bigarrenak, berriz, hilaren 19an lehiatuko dira; eta bikote irabazlea ere izango da finalerdietan.

Partidak 30 tantora jokatuko dira, bigarren sailkatuen artean jokatu beharreko partidak izan ezik. Bikote batek kale eginez gero, galdutzat emango zaio partida, 30-0ko emaitzaz.

Finalerdiak hilaren 21ean jokatuko dira, 19:00etan, Berazubiko frontoian. Eta finala hilaren 23ean, ordu eta leku berean. Bietan txuriz jokatzea ezinbestekoa dela azaldu dute antolatzaileek.

**PARTIDAK, GAUR ▶**

1. Renobales-Imaz / Garmendia-Urretabizkaia.
2. Apeztegia-Maiza / Bengoa-Goikoetxea.
3. Otermin-Goitia / Pablo-Miguelxo.

**BIKOTEAK ▶**

**A TALDEA**

- ▶ Renobales-Imaz.
- ▶ Otermin-Goitia.
- ▶ Pablo-Miguelxo.
- ▶ Garmendia-Urretabizkaia.

**B TALDEA**

- ▶ Apeztegia-Maiza.
- ▶ Lontxo-Nazabal.
- ▶ Bengoa-Goikoetxea.
- ▶ Iñaki-Txapartegi.

**C TALDEA**

- ▶ Zabaleta-Urdanpilleta.
- ▶ Yugueros-Aldazabal.
- ▶ Orbegozo-Goñi.
- ▶ Lakunza-Agote.

**HITZA**, eskualdeko plaza **661 678 818**  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta Toki aproposa iragartzeko

ANOETA ▶ HIRIGINTZA

# Babes ofizialeko 58 etxebizitza egiteko hitzarmena sinatu dute

Bildo 5 kooperatibak eta Anoetako Udalak sinatu berri dute Iturtxulon babes ofizialeko etxeak eraikitzeke hitzarmena



Iturtxulo eremuan egingo dituzte babes ofizialeko 58 etxebizitza. G. AZKUE

## GARAZI AZKUE

Anoetako Udalak Bildo 5 kooperatibarekin, babes ofizialeko etxeak eraikitzeke hitzarmena sinatu du. Hitzarmen honen ondorioz, Iturtxulo eremua Bildo 5 kooperatibaren esku izango da, bertan etxeak eraiki ahal izateko; ordainetan, Udalak, gutxitu fisikoentzat etxe bat, hogeita lau garaje eta bi lokal jasoko ditu.

Ekainaren 17an sinatu zuten Anoetako Udalak eta Bildo 5 kooperatibak, udaletxeko pleno aretoan hitzarmena. Honen bestez, kooperatibak, 58 etxebizitza eraikiko ditu Anoetan. Eraikuntzaren kudeaketarako,

bestalde, Bildogest enpresaren zerbitzuak kontratatu dituzte.

Adjudikazioa lehendik emanda bazegoen ere, pasaden elkarteratze honetan, lurrraren jabegoa emateko hitzarmena sinatu zuten Udalak eta aipatu kooperatibak.

Oinarritzko proiektua Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zuten, eta legeari egokitzearren aldaketa batzuk egin ostean, onarpenaren zain daude orain bi aldeak. Eusko Jaurlaritzak oinarritzko proiektu hori onartu bezain azkar, eta bisadoa lortu bezain agudo, hurrengo pausoa murgilduko dira, babes ofizialeko etxeen kalifikazioa lortzeari ekingo diote.

Bestalde, «udal teknikariak eraikuntzako proiektuaren moldaketa lanetan dihardute, ahalik eta epe laburrenean Bildo 5 kooperatibak bere eskuetan izan dezan eta eraikitzen hasi daitezten», aipatu dute Udaletik.

## Udala pozik

Anoetako alkatea Fidel Azpiroz pozik agertu da aurrera pauso honen aurrean: «Ekintza hau guztiz pozgarria eta oso berri ona da guretzat», aipatu du. Orain, «proiektu honi esker, 45 gazte anoetarrek etxebizitza izateko aukera dute», gaineratu du Azpirozek.

AIZTONDO ▶ GIZARTEA

# Karrantzara irteera uztailaren 20an

Aiztondok antolatu du irteera jubilatuentzat; uztailaren 14a arte da izena emateko epea

## G. AZKUE

Aiztondoko jubilatuek Karrantzara joateko aukera izango dute uztailaren 20an; Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak irteera antolatu baitu haientzat.

Goizean, Pozalaguako kobazuloak ikustera joango dira guztiak. Ondoren, Laredora joango dira, eta han bertan bazkalduko dute. Arratsaldean Castro Urdiales bisitatuko dute. Irteerara joan nahi duen orok 22 euro ordaindu beharko ditu, eta bazkaltzeko menua ondorengoa izango dute: kabarroka pastela, marmita, txahalki xerra eta koko pudinga.

Izena emateko epea uztaila-

ren 14an bukatu da. Kobratzeko egunak, berriz, ondorengok izango dira: Larraulgo liburutegian, uztailaren 12an egongo dira, 12:30etik 14:00etara. Alkizako liburutegian uztailaren 15ean izango da kobraketa, 12:30etik 14:00etara. Eta Adunako liburutegian uztailaren 13an egongo dira, 12:30etik 14:00etara. Zizurkil-darrek, Aiztondoko egoitzara joan beharko dute, edota, 943 69 39 30 telefonora deitu.

Irteera orduei dagokienez, Larrauldik abiatuko da autobusa 7:30ean uztailaren 20an. Ondoren, Alkizara egingo du, 7:45ean. Zizurkil goitik 8:00etan pasako dira, eta behetik 8:15ean. Azkenik, Adunara joango dira 8:15ean.

ANOETA ▶ GIZARTEA

# Abian dira KZguneko ikastaro berriak Anoetan

Hilabete honetan merkatariari zuzendutako ikastaroak izango dira ordutegi berezian

## G. AZKUE

Anoetako KZgunea martxan da oraindik ere, ikastaroak eta bestelako mintegiak egiteko aukera dago bertan.

Uztailako lehen ikastaroak hasi dira jada, baina bigarren hamabostaldirako izena emateko aukera dago oraindik. Uztailaren 19tik 23ra izango da aste bateko ikastaroa; eta bi asteko ikastaroa nahi dute-

nek, 19tik 30era egon daitezke, 14:30etik 16:00etara.

Bestalde, merkatariari zuzendutako doako ikastaroak ere eskainiko dituzte, ordutegi berezian: 13:00etatik 14:30era, edota 14:30etik 16:00etara. Izena, merkatariari eta 16 urtetik gorakoek eman dezakete. Interesatuak Anoetako Solkorre, 4tik pasa edota 943 65 48 57 telefonora deitu berterik ez dute izango.

## iragarki laburrak ▶



**Aia.** Baserrira salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m<sup>2</sup>-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

**Aizarnazabal.** 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

**Anoeta.** 2 eta 3 logelako etxebizitza berriak.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garabiarekin.

**Donostia.** Rodil zeharkalean 42 m<sup>2</sup>-ko apartamentu berritua, erabat

kanpoaldera. 234.400 euro.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, Kolon pasealekuan, bista zoragarriak dituena eta berritua.

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza.

Berritzeko. Lehenengo pisua.

Kanpoaldera.

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500

m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Irura.** 52 m<sup>2</sup>-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan.

**Itsasondo.** Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

**Legorreta.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai, 5.000 m<sup>2</sup> dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

**Lizartza.** Solairuko 130 m<sup>2</sup> dituen hiru solairuko baserri berritua.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai. Eraikuntza berrikoak.

**Segura.** 60 eta 90 m<sup>2</sup>-ko bi etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Etxe atxikia. 180 m<sup>2</sup>-koa, lau gela, bainugela eta komunua. Altzariez hornitutako sukaldeak.

**Tolosa.** Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldeak, bainugela eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel kalean, garaje itxia salgai. 16 m<sup>2</sup>-koa da garajea.

**Tolosa.** San Estebanen 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

ALTZO ▶ AISIALDIA

# Kirola eta jolasa bat direnean

## Azkarateko jaietara oinez joango dira gaur udaleku irekietako gaztetxoak

OLAIA ESKITXABEL

Hogeita hamabi haur, hiru begirale eta udako egunak betetzeko ideia ugari. Pasa den astean hasi ziren Alton udaleku irekiak; uztailearen 23a bitarte joku, irteera... ugari egingo dituzte bi urtetik hamar urte bitarteko haurrek eta gaztetxoak.

Atzo, eguraldi kaskarra zegoela ikusita, pilotalekura joan ziren; bertan, gustura ibili ziren haurrak zein begiraleak. Korrika, zaku karrera, koskol bilketa... izan ziren, besteak beste, egin zituzten jokoak. Sokatiran ere aritu ziren; lurretik arrastaka amaitu zuenik ere izan zen tartean.

Orain arteko egunak, jolasan, margotzen... eman dituztela azaldu dute begiraleek. Aurrea begira ere egiteko ugari antolatuta dituzte; igerilekura irteera, mendi irteerak...

Gaur, San Fermin eguna izanik, ohitura da altzotarrak oinez Azkarateko jaietara joatea; ohiturari jarraituz, udaleku ire-

kietako hainbat gaztetxok ere egingo dute ibilaldia. Txikienak gurasoekin joango dira bertara; 08:30ean abiatuko dira herriko plazatik.

### Tolosarrak bisitan

Altzoko haurrak pilotalekuan zeuden bitartean, herriko plazan eta parkean ere haurrak ari ziren jolasean. Tolosako Hirukide ikastetxeko haurrak ziren; batzuk, plazan futboleant jolasten zuten, besteak, txikienak, parkean: «Taldea handia gara eta Altzoko erraldoiaren erakusketa ikustera etorri gara; talde bat bertan dagoen bitartean besteak jolasean ari dira hemen», azaldu du begiraleetako batek.

Altzora autobusez igo ziren tolosarrak; bertako erakusketa ikusi, jolastu eta etxerako bitolatu dituzte; igerilekura irteera bila joan zenean.

Ikusten denez, eskualdeko herriak bisitatzeak aukera ere izaten dute haurrek eta gaztetxoek udaleku irekietan.



**Txikienei laguntzen.** Bi urteko haurrek begiraleen laguntzarekin eta gainontzekoen animo oihuekin jaso zituzten koskolak. O. ESKITXABEL



**Sokatira.** Soka luze bat hartuta bi saio egin zituzten; tira eta tira lurretik bueltan ere aritu ziren batzuk. O. ESKITXABEL



**Taldeka.** Lau taldetan banatuta eta erlojupean korrika, zaku lasterketan, koskol bilketan, txingetan... aritu ziren gazteboak. Giro ederrean burutu zituzten froga guztiak; saioaren amaieran talde guztiek izan zuten saria. O. ESKITXABEL

ALBIZTUR ▶

## Jai Batzordearen bilera gaur Kultur Etxean

Abuztuaren erdialdean izango dira Albizturko jaiak eta pixkanaka egitaraua zehazten ari dira herritarrek. Gaur Jai Batzordearen bilera egingo dute Kultur Etxean; 21:00etan emango zaio hasiera. «Herritarrei bilerara agertzeko deialdia» luzatu diete batzordeko kideek.

IKAZTEGIETA ▶

## Larruazala zaintzeko gomendioak

Kristina Oterminek hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, uztailearen 14ean, Kutxak antolatuta. **Larruazala nola zaindu** izeneko hitzaldian larruazala osasuntsu mantentzeko gomendioak lutzuko ditu adituak. Hitzaldia, kiroldegian izango da 16:30ean; Udalak herritar guztiak gonbidatuta daudela azaldu du.

ANOETA ▶

## Liburutegia eta Internet zerbitzua goizez irekita

Udal liburutegian udako ordutegia dago martxan ekainaren 21az geroztik; astelehenean ostiralera, 11:00etatik 13:00etara bitarte dago zabalik. Internet zerbitzua erabili nahi dutenak, berriz, 09:30etik 13:00etara gerturatu daitezke. Abuztuaren liburutegia itxita egongo dela azaldu dute, bestalde.

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

**MERKATAL AGENTEA**

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

BERROBI ▶ PILOTA

# Profesionalitateko estraineiko partidari maila ona emanda irabazi du Iñigo Altunak

Frontis enpresarekin sinatu du kontratua bi urterako; Altsasun, larunbatean egin zuen estraineikoa, eta Martin Alustizarekin batera 22-19 irabazi zuen



Iñigo Altuna, Frontiseko bere elastikoa eskuan duela. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Lehen partidutik, bere dohaien berri ematen. Frontis enpresako elastikoarekin, profesionalitateko estraineikoa jokatu zuen larunbatean Altsasun Iñigo Altunak. Jokatu eta irabazi. Martin Alustizarekin batera, 22-19 gailendu zitzaizkien Carmelo Ariznabarreta eta Jon Gorritiri. Eskuinkada bikainak jo zituen Berrobiko atzelariak; bosgarren koadro ingurutik ederki atzeratu zuen pilota Altunak, eta Alustizak aukerako pilotak izan zituen tantoak amaitzeko. Giro polita izan zen Altsasun, eta Berrobetik ere 20-25 lagun ziren Altuna animatzera.

Ondo jokatzen hasi arren, 0-5 hasi ziren galtzen Alustiza eta Altuna, baina ondoren abantaila hartu zuten (10-6). Hortik aurrera aurretik joan ziren azken emaitza arte.

Iazko abenduan DVko finala galdu ostean, apur bat behera egin zuen Altunak. Halaber, be-

rriro suspertu, eta pixkanaka txapelketetan bere maila ematen hasi zen; Ourretan txukun aritu zen, eta Irunen Kurpil txapelketako finalera iritsi zen ekainaren 25ean. 22-19 galdu zuen orduan, baina ederki aritu zen. Frontis enpresako Carmelo Ariznabarreta, Inaxio Errandonea eta Karlos Armandariz joan ziren Berrobiko atzelaria ikustera, eta partida ostean Errandoneak bera fitxatzeko asmoa zutela adierazi zion. Biharamunean deitu zion berriro Errandoneak, eta kontratuaz negoziatzeko hurrengo egunean egin zuten hitzordua Iruñeko jatetxe batean. Enpresaburuekin akordio batera iritsi zen Altuna: bi urterako sinatu zuen kontratua, eta gutxienez urteko 50 partiduko jokatzea ziurtatu zioten.

Enpresa berria da Frontis; oraindik ere Asegarre eta Aspe enpresen itzalean dago, baina pixkanaka indarra hartzen ari da, zabaltzen. Ia hama-

PALMARESA ▶

AFIZIONATUETAN

- ▶ Gipuzkoako txapeldun binaka, 2001 eta 2002an.
- ▶ Federazioen Txapelketako irabazle, 2000an.
- ▶ Mungia Trobika Torneoko txapeldun 2003an eta 2004ean.
- ▶ Elgoibarko Torneoko txapeldun binaka, 2003an.
- ▶ Ourretako Torneoko txapeldun, 2003an.
- ▶ Usurbilgo Torneoko Txapeldun 2003an.
- ▶ Elgetako Torneoko azpitxapeldun 2002an.
- ▶ DVko Torneoko azpitxapeldun, 2003an.

best pilotari daude egun Frontisen. Iruñean du egoitza enpresak, eta bertako telebistak batek euren partiduko eskaintzen ditu. Udan partidua asko jokatuko ditu Altunak Frontisen elastikoarekin. Gehienbat Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan jokatuko ditu partidak.

Lantegi batean aritzen da erreleboko Altuna, eta lan hori pilotarekin uztartzeko asmoa du oraingoz.

Ezkerrarekin ongi defenditzen den arren eskuina du bere arma nagusia: kolpe itzela du, eta bikain astintzen du pilota. Ostiralean Larrabetzun, eta larunbatean Quintanar de la Sierra (Burgos) izango ditu hurrengo partidak. 25 urte ditu Altunak, eta Tolosako San Esteban taldean aritu da orain arte.

IÑIGO ALTUNA ▶ FRONTISEKO PILOTARIA

## «Nire maila ematen badut, ondo ibiliko naizela uste dut»

Aditu askok diotenez, bera zen afizionatueta zegoen atzelari onena. Enpresakoak pozik dira Altunarekin, eta berrobitarra ere gogotsu, bere maila erakusteko irrikitan.

**DV finalaren penak ahaztuta izango dituzu, ezta?**

Bai. DVko finala galduta, bizpahiru partida txar egin nituen, eta morala apur bat jaitsita ibili nintzen. Pixkanaka buelta ematen hasi eta hobetzen hasi nintzen; orain gustura nago.

**Frontisekin iritsi zaizu profesionalitateko aritzeko aukera.**

Afizionatueta txapelketa garrantzitsuetan aurrean aritu naiz, eta orain aukera eman dinate. Bi urteko kontratuarekin lasaigo nago, neure maila erakusteko nahikoa denbora delako. Gainera, esperientzi handikoak, oso pilotari onak izandakoak daude enpresan. Horrek ikasteko ere lagunduko dit.

**Enpresa berria izanagatik badu etorkizuna.**

Arduradunak enpresa oso ondo doala eta ilusionatuta daude, itxaropentsu, egunetik egunera goraka doala ikusten dutelako. Horrek ere animatu nau Frontisekin sinatzera.

**Estraineiko partida.**

Ondo jokatu nuela iruditzen zait. Uste baino lasaigo aritu nintzen. Ondo berotu genituen eskuak, eta horrek nerbioak askatzen eta lasaitzen lagunduko du.

**Nola ikusten duzu geroa?**

Ea nire maila ematen dudana.



D. GIBELALDE

Hala bada, ondo ibiliko naizela uste dut.

**Eskuetatik ondo?**

Ez dut arazo handirik. Pilota hauek nahiago ditut afiziona-

tuetakoak baino. Lehen pilotak zakarragoak ziren. Halere, nik tako asko jartzen ditut, eta partidak orain gogoragoak izango dira. ◀



## www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ UDALA

# Kooperatiba auzoko lanak Zaraz SL-ri egokitu zaizkio

Irusuko etxearen salmentarako plegua onartzeaz gain, guardia zibilaren jokabidea Kultur Astean salatu dute



Mahaiaren irudia, Larraineko ordezkariak jendartean direla. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Patxi Arrazola auzoko kooperatibetan egin asmo diren lanen esleipena egin zen, besteak beste, ostiralean udaletxean egin zen aparteko batzarrean.

Bi eraikuntza enpresek aurkeztu zituzten lan hauek egiteko proposamenak: Zaraz SL construcciones y urbanizaciones alde batetik, eta Construcciones Legarra-Lazcoz SL bes-

tetik. Bi lehiakideen proposamen tekniko eta ekonomikoak baloratu ondoren, puntuaketa hobereana atera zuen Zaraz SL-ri esleitu zioten auzo horretako hiri instalazio sareen berrikuntza eta zoladura lana egiteko ardurua, 962.428,07 euroren truke (lehengo 160.134.557 pezeta) eta lanak 5 hilabeteko epean amaitzeko baldintzarekin. Obren zuzendaritza, proiektua egin zuen arkitekto-

ak berak eramanen du, Carlos Gilek alegia. Batzarrean esan zuten, hil honen erdialdean lanekin hasteko asmoa da.

Irusu enkantean

Irusuko etxearen salmentako baldintza-plegua ere onartu zuen batzarreko mahaiak: enkante publikoan saldua izan da. Baina erabaki hau eztabaidatsua suertatu zen, izan ere herriarena den etxe hau saltzeko orduan, bere garaian bete duen zerbitzua bete dezan baldintzatzea defendatzen baitzuten alde batetik eta bestetik, berriz, ez zuten hori bidezkoztat jotzen. Horrela mahaiko kideen gehiengoz, aparteko klausularik gabeko enkantea egitea erabaki zuten.

Salaketa mozioa

Bestalde, ohiko tramitezko puntu pare baten ondoren, bi mozio eztabaidatu eta onartu ere egin zituzten: euskararen tratamenduari buruzkoa bata eta Kultur Asteo guardia zibilaren jokabidea salatzen zuena bestea. Azken honetan, Larrain Herri Plataformak aurkeztuta-

koa izaki, eta hori zela kausa UPNko kideek eztabaidan parte hartu ez bazuten ere, gainerako taldeen salaketa bateratua izan zen, gertakariak zuzenean bizitu zituzten Kultur Taldeko kide eta herritarren testigantzarekin bat eginez.

Puntu horretan, soinu-kutsaduraren aurkako adierazpenak ere entzun ahal izan ziren, bertan zeuden herritar batzuren ahotik, zehazki gertakari haien eragiletzat arrazoi hori joz.

Onartu zen beste mozioan —Nafarroako euskal eremuko udaletan egiten ari den ildo beretik— udaletako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuei dagokienean, Nafarroako Toki Araubideak eguneratzeko Foru Lege proiektuak euskarari ematen dion tratamenduari «idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko (...) euskara jakitea ezinbestekoa izan da, plaza beteko den toki entitatearen plantila organikoan horrela zehaztuta dagoenean» dioen zuzenketa edo oharpen bat egiteari adostasuna agertu zieten. Kasu honetan, UPNko kideek aurka bozkatu zuten, herri euskaldunetan, langilea euskalduna behar dela ikusi arren «eremu ezeuskaldunetan ez dugu beharrezkotzat jotzen», argudiatuz. Mozioarekin, finean horixe proposatzea onartu zuten beste taldeek.

Erabakiak erabaki, batzarren bukaeran eta azken puntu gisa, beste zenbait berri ere eman ziren ezagutzera. Besteak beste, Olaberriko biribiluneko lanak bukatuta daudela adierazi zen eta festaurrean ofizialki inauguratzeko asmoa plazaratu zuten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etb: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Iruia.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larriald:461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Santamaria. Nafarroa, 2, (Tolosa). 943 65 46 10.  
M. Plaza. Elbarren, 36, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatean.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publi@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

MUSIKA ▶

## Aralar musika eskolan matrikulatzeko epea irekita dago jadanik

Hurrengo ikasturterako matrikulazioa uztailean zehar egin behar da udaletxeetan

J. ASTIBIA

Aralar udal musika eskolan matrikulazio kanpaina abian da eta uztailean zehar egin daiteke, Areso nahiz Leitzako udaletxeetan edo Karrape Irratian, inprimakiak bertan baitaude.

Arduradunek adierazi dute, matrikula hilabete honetan bakarrik egin daiteke, hala

egin ezean, eskatzaileak kanpoin geldituko lirake.

Hurrengo ikasturtean ere, lau urtetik hasi eta adin mugarik gabe, hizkuntza musikala, musika tresnaren bat jotzen eta abesten ere ikasteko aukera izanen da, talde instrumentaletan parte hartzeko bidea izanez, ohiko moduan. Orduetgiak eta ikasturteko helburuen



Aurtengo kontzertuan. J. ASTIBIA.

berri, irailean emanen dituzte ezagutzera horretarako deituko dituzten bileretan.

Bitarrean, informazio zehatzagoa jakin nahiz gero, telefono zehazki honetara deitu daiteke: 948 50 44 89.

LEITZA ▶

## Ordezko udal idazkari berria lanean hasiko da laister

J. ASTIBIA

Amatasun baja betetzeko, udal idazkariaren ordezkoa izateko hauta frogak bukatu berri dira (astelehenean). Horrela hil honen erdialdetik aurrera, lau hilabetetan, Egiarte Larunbe Fernandez, Lizarrakoa, ariko da lan horretan, bera izan baita burutu diren frogak guztiak gainditu dituena, aurkeztu ziren sei lagunetatik. Abuztua arte, idazkariaren laguntza izanen du.

iragarki laburrak ▶

LANA

**Zerbitzaria.** Asteburuetarako neska bat behar da barrarako. Telefonoa: 943 69 19 33.  
**Alegian.** Emakume bat behar da ebeko lanak egiteko Alegian. Orduetgia: 10:30etik 14:30era. Telefonoa: 943 65 30 34 (arratsaldetan deitu).  
**Mendiko lanak.** Mendiko lanetan aritzeko pertsona bat behar da, Berastegi, Leitza eta Larrain bailararako. Bertakoa bada hobe. Telefonoa: 619 23 24 45.

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 7a, asteazkena ▶ II. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Aizta, Alzo, Ametzeta, Aneta, Balerano, Berasteg, Edoain, Hernialde, Ibarra, Inza, Larnai, Leizorua, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurlaritza.  
Kultura Saila

**943 30 43 46**

GAURKO  
EGURALDIA



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.  
**Ibarra.** Koadrilien Eguneko bilera. Bihar, 20:00etan, Sendi Ekintzako lokalean, Urrustaka koadrilak antolatuta. Beharrezkoa da koadrila bakoitzeko kide bana, gutxienez, batzarrera joatea.  
**Tolosa.** XIV Orduko Ibilaldiko bideoa Shanti eta Dickens tabernetan ikus eta eros daiteke.  
**Tolosa.** Paper Eskolan datorren ikasturterako (2004-05) Goi eta Gradu Ertaineko ikasketak egiteko matrikula egin nahi dutenek gaur dute azken eguna. Informazio gehiago nahi duenak: ikastetxeko idazkaritzara joan edo 943 67 29 00 telefono zenbakira dei dezake. Edo bestela, info@escuela-papel.com helbide elektronikora idatzi.  
**Tolosa.** Harizpe elkarrekin irteera antolatuta du Iruñeko sanferminetara hilaren 12rako. Burlatoko jubilatuen ebean bazkalduko dute. Izena ematean 30 euro ordaindu behar dira, eta bazkideek 27 euro. Txartelak bihar arte izango dira salgai elkarrekin eragotzan.

**ERAKUSKETAK**

**Aitzo.** Aitzoko erraldoia, Aitzo ezaguna egin duen gizona erakusketa haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.  
**Hernialde.** Luis Mari Nuñezen koadroak Ostatuan dira ikusgai egunotan.  
**Ibarra.** Argazki rallyan herriko haurrek ateratako argazkien erakusketa dago jarrita Kultur Etxean: natura, herriko guneak, paisaiak... Hilaren 16a bitarte.  
**Tolosa.** Kultur Etxeko tailerretako ikasleen eskulanean erakusketa Aranburu Jauregian. Egutero ikus daiteke, astegunaz, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:00etatik 20:00etara. Hilaren erdialdea bitarte izango da zabalik.

**HITZA soinean!**  
**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ HITZAK askotariko kamisetak atera ditu emakumezko eta gizonezkoentzat; Tolosako egoitzan dira salgai**



Hitzako kamisetak tamaina, mota eta kolore askotakoak dira; gizonezko eta emakumezkoentzat egin ditugu. Etorri eta ikusi! AMAIA BELAUNZARAN

**I. ETXEBESTE**

U da heltzarekin batera, askotariko kamisetak atera ditu HITZAK gizonezko eta emakumezkoentzat. Modernoak, freskoak... eta politak! Merkatuko elastiko onekin lehiatzeko modukoak

dira, gainera, Ondarroan duela bi aste egin zuten *Zapato Azule* jaiko VII. Euskal Herriko Kamisetak Azokan inguruko jantzi onenaren saria eman ziotelako. Gure lankide Amaia Belaunzaranez egindako diseinua laugarren geratu zen Euskal Herri mailako lehiaketan.

Tamaina, kolore eta mota askotakoak egin ditu HITZAK lehenak, eta aurrerantzean haurrentzako kamisetak egiteko asmoa ere badu, besteak beste. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Tolosa (Araba etorbidea 5, behe) duen egoitzan eros daitezke, 12 eurotan gizo-

nezkoenak eta 15 eurotan emakumezkoenak.  
Harpidetza eginez eta eskualeko euskarazko egunkaria irakurriz bakarrik ez, HITZAKO kamisetak soinean eraman ere egin dezakegu hementik aurrera euskararen alde. Etorri eta ikusi!

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Ane Maiza Errazkin. Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Udane Sarasola (Anoeta). Asteleheneko partez, zorionak etxekoan eta Miguelen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Josu Zapirain (Ibarra).

Aupa Josu!  
Nahiz eta zure urtebetetze egunean bertan ezin egon belarrietatik tiratzeko, zorionak eta urte askotan!  
Gora Erreal! Gora euskal selekzioak! Jo ta ke, irabazi arte!



**ZORIONAK**  
Unai Zubeldia Elduaian (Ibarra). Gure ttikiak urtebetel! Gonbidatuta zaudete denak Urton egingo dugun ospakizuneran.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarte  
Mesedez,  
ekarri argazkia bi egun  
lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara  
(Araba etorbidea, 5  
behea - Tolosa)